

# Mitoidun neska

Seaska din-dan'ean zebillen, emendik ara eta andik onera.

Seaskan gozo-gozo lo zegoan nexka txiki bai, oso txikia eta oso polita.

Begi aundi-aundi urdiñak zituan, eta sudurtxo txiki laburtzua, bolatxo bat zirudiena. Eta aun zan politena;: beti gorri-gorri zeukan! Lenengotan, ez zekiten zergatik ote zeukan beti onela, baña igerri zuten, beste gela beroago batera eramaten zute-nean, gorritasuna jun egiten zitzaiola, eta gela zerbait oztutzen ba'zan, atzera gorritu egiten zitzaiola, eta umea negar batean asitzen zala.

Eta au gertatzen zan, Nuria txikiak (Nuria zan umearen izena) beti otx aundia zeukalako, eta augaitik milla estalki artean cuki bear izaten zuten, bero-berotan.

Onela azi zan, eta eguzkiak, asko berotzen zuanean bakarrik, erden oi zuan etxetik, suangillak bezela, eta otxkirri apurtxo bat nabaitu orduko, etxera eraman, eta ondoondo estalduta, here oetxoan sartzen zuten.

Neskatzua zerbait asi zanean, bere amak uste izan zuan, beste umeak bezela oituko zala, eta ayek bezela bizi al izango zala. Baña alegiñ guztiak, alperrikakoak izan ziran, Nuria gaxo zegoan da.

Eziñ oitu zan, etxe barruan ere, belarriak estaltzen zizkion txanurtzua, gorputza biltzen zion estalkia, barrutik, konejuen narrua zuten oñetakotxoak, eta ardille gorrizko esku-erdi estalkiak, kentzen.

Negua eltzen zanean, Nuria sutondoan exeri oi zan, eta ezertarako ez zuan andik zirkiñik egiñ oi, ez eta jateko ere.

Jan ere, egiñ nai ez zuan denbora eldu zan, eskua, plateretik aora jasotzean, otzikaraz dar-dar, jartzen zala uste zualako.

Askenez, ezertarako igitzen ez zala jarri zan; beti otxak, beti otzen hildurrez, beti estalkipean batu-batu eginda, otxik ez iza-tearren.

Baña, jaten ez zualakoz, geroago ta makalago zijoan, geroago ta aulago, ta geroago ta gaizkiago; itzik ere eziñ entzun leikioa, ari bat bezelako abots meia zeukan, eta urrutitik itz egiten zuala zirudian. Nuria gaxoa atzerantz zijoan, gero ta gaizkiago.

Egun batean, su ondoan beti bezela, kuxkul'duta zegoala, bere burua ta gorputza jira-ta-bira asi zitzaizkion, eta uste izan

zuan, gelan, orri igar bat bezela egaz zebillela, beia jo gabe.

Bat-batean, Nuria'k otx ikaragarri bat nabaitu zuan; gelako atea, bat-edonbatak zabalik laga zualako, eta berari, nor baitek zuzentzen zizkion itz bigun batzuek entzun zituan. Esnatu zan bere lo zorro edo erdi-amesetatik, eta begiak zabal-zabal egiñik aterantz begiratu zuan. Bertan, mutiltxo txiki, txiro bai, soñeko zar-zarrakaz, otxak, ikara batean, zutik zegoan, eta auxe esan zion abots bigunez:

—Gose naiz, eta otxak nago. Begira nere esku gaxoak dana zartatuta, berotu eziñ ditutalako. Nik ez det eskuetakorik, eskuak estaltzeko... Emango al dizkidatuz zeuriok?

Nuria'k begiratu zuan eskuetara eta pentzatu zuan: «Nik, otza bakarrik daukat, baña mutiltxo onek, otza eta gosea».

Eta, bera gaixorik, zegoala pentzatzeko, kendu zituan eskuetakoak, eta ez eskuetakoak bakarrik, baita ere bere gorputza batu-batu egiten zuan estalki beroa, eta sutondoan, bere alboan, leku bat egiñik, ipiñi zion gaiñean bere estalkia, eta esan zion: —«Gixajoa, gose aundia dezu, ez ba? Oraintxe emango dizute jaten.»

Eta bere amari deituaz, esan zion:

—Amatxo, begira mutiltxo gixajo au! Ni baño gaizkiago dago, otxez gañera gosea ere bai du ta, eta bakar-bakarrik aurkitzen da munduan. Ez du amarik, nik bezela, eta iñork ez du zaintzen.

Eta, soñeko zardun mutiltzua, gogoz besarkaturik, bere gorputz aulak zeukan epel apurra eman nai zion.

Eta... orra miraria! Len, otxak dar-dar zegoan mutiltxo txiroak ikutu zionean, Nuria'ren gorputz izotztua, poliki-poliki, berotzen asi zan, Jaungoiko'tar beroaz, eta bero onek sendatu zion beñ-da-betiko bere gaitza.

Gau ura Gabon gaba zan, eta Nuria'ren biotz errukitsua saritzeagaitik, Jesus Umea, Ber-Bera etorri zan Nuria ikertzera.

*Arritokieta*

(«La niña de los mitones») Fabiola, Beljika'ko erregiñak egindako «Doce cuentos maravillosos» etik euskeratuta.